Ariketak88

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

I. **Aukeratu esaldi egokia Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua kontuan hartuz:**

1. a) Idorreriari aurre egin nahi badiozu, ez hartu janari edo edari lehorgarririk: ogi **txigortua**, galletak, arrautza egosiak, ardo beltza, tea...
   b) Idorreriari aurre egin nahi badiozu, ez hartu janari edo edari lehorgarririk: ogi **xigortua**, galletak, arrautza egosiak, ardo beltza, tea...
2. a) Entzima da erreakzio biokimikoak eragiten edo bizkortzen dituen gai **urtukorra.**
   b) Entzima da erreakzio biokimikoak eragiten edo bizkortzen dituen gai **urkorra**.
3. a) Uraren kudeaketa maiz egin da ustezko garapen industrial eta ekonomikoaren irizpide estuek **xedarrituta**; bada garaia, ordea, irizpide berriak zehaztu eta kudeaketa hori erabat aldatzeko.
   b) Uraren kudeaketa maiz egin da ustezko garapen industrial eta ekonomikoaren irizpide estuek **zedarrituta**; bada garaia, ordea, irizpide berriak zehaztu eta kudeaketa hori erabat aldatzeko.
4. a) Mendi txango polita egin genuen; oroitzeko modukoa, benetan. Errekaren ertzetik igo ginen, eta, goi-goian, **ur-jauzi** eder batean bainatu.
   b) Mendi txango polita egin genuen; oroitzeko modukoa, benetan. Errekaren ertzetik igo ginen, eta, goi-goian, **urjauzi** eder batean bainatu.
5. a) Hizlariak alfabetatze-euskalduntzearen alorrean dagoen egoera **xehatu** eta gero, oinarrizko hizkuntza eskubideak ez direla bermatzen aldarrikatu zuen.
   b) Hizlariak alfabetatze-euskalduntzearen alorrean dagoen egoera **xehetu** eta gero, oinarrizko hizkuntza eskubideak ez direla bermatzen aldarrikatu zuen.
6. a) Ikuskizun bakarrean **xertatutako** bi emanaldi dira: lehenengoa, belaunaldien arteko gatazkak irudikatzen dituen antzezlana, eta, bigarrena, adin ezberdinetako dantzariek sortutako koreografia.
   b) Ikuskizun bakarrean **txertatutako** bi emanaldi dira: lehenengoa, belaunaldien arteko gatazkak irudikatzen dituen antzezlana, eta, bigarrena, adin ezberdinetako dantzariek sortutako koreografia.
7. a) Euskal Herriko hainbat lekutan, **ximaurraren** konpostajerako zerbitzu bat jarri da abian.
   b) Euskal Herriko hainbat lekutan, **simaurraren** konpostajerako zerbitzu bat jarri da abian.
8. a) Urdaibaiko itsasadarretik **xalupan** ibiltzeko aukera dugu urteko edozein egunetan.
   b) Urdaibaiko itsasadarretik **txalupan** ibiltzeko aukera dugu urteko edozein egunetan.
9. a) Batetik eta bestetik bertaratutako makina bat lagun bildu ziren igandeko azokan. Baserriko produkturik onenak eskaini zituzten postuetan; nik, ordea, **urritzez** egindako makila bat besterik ez nuen erosi.
   b) Batetik eta bestetik bertaratutako makina bat lagun bildu ziren igandeko azokan. Baserriko produkturik onenak eskaini zituzten postuetan; nik, ordea, **hurritzez** egindako makila bat besterik ez nuen erosi.

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

10. a) Ustez, saiek ez diote eraso egiten ganaduari bizirik dagoenean, baina horrelako erasoak salatu izan dituzte hainbat abeltzainek. 2014an hogei **txahal** eta 15 ardi agertu dira hilik, eta kezkatuta daude abeltzainak, biologoak zein agintariak.

    b) Ustez, saiek ez diote eraso egiten ganaduari bizirik dagoenean, baina horrelako erasoak salatu izan dituzte hainbat abeltzainek. 2014an hogei **xahal** eta 15 ardi agertu dira hilik, eta kezkatuta daude abeltzainak, biologoak zein agintariak.

2. **«Sozietate anonimoaren eta kidekoen laburtzapenen inguruan» artikuluan oinarrituta, aukera ezazu esaldirik egokiena:**

1. a) Acideka, S.A.k Lantaronen (Araba) kloruro ferrikoa ekoizteko dituen instalazioak handitze-proiektuari buruzko ingurumen-inpaktuaren azterlana.

    b) Acideka S.A.k Lantaronen (Araba) kloruro ferrikoa ekoizteko dituen instalazioak handitze-proiektuari buruzko ingurumen-inpaktuaren azterlana.

    c) Acideka SAk Lantaronen (Araba) kloruro ferrikoa ekoizteko dituen instalazioak handitze-proiektuari buruzko ingurumen-inpaktuaren azterlana.

2. a) UBARISTI MAROC SL enpresak internazionalizaziorako bidea Morokon ireki ondoren, taldearen zabalkuntza areagotu egin da Frantzian sortutako UBARISTI FRANCE SL sozietatearekin.

    b) UBARISTI MAROC, S.A.R.L. enpresak internazionalizaziorako bidea Morokon ireki ondoren, taldearen zabalkuntza areagotu egin da Frantzian sortutako UBARISTI FRANCE, S.A.R.L. sozietatearekin.

    c) UBARISTI MAROC SARL enpresak internazionalizaziorako bidea Morokon ireki ondoren, taldearen zabalkuntza areagotu egin da Frantzian sortutako UBARISTI FRANCE SARL sozietatearekin.

3. a) Sail honi atxikitzen zaizkio: Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SA, Basquetour Turismoaren Euskal Agentzia, SA, eta Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, AB (NEIKER) sozietate publikoak.

    b) Sail honi atxikitzen zaizkio: Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SA, Basquetour Turismoaren Euskal Agentzia SA, eta Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea AB (NEIKER) sozietate publikoak.

    c) Sail honi atxikitzen zaizkio: Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A., Basquetour Turismoaren Euskal Agentzia S.A, eta Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, A.B. (NEIKER) sozietate publikoak.

4. a) Goggomobil Hans Glas GmbH enpresak Bavariako Dingolfing herrian Bigarren Mundu Gerra ostean egindako mikrokotxea izan zen.

    b) Goggomobil Hans Glas EMLB enpresak Bavariako Dingolfing herrian Bigarren Mundu Gerra ostean egindako mikrokotxea izan zen.

    c) Goggomobil Hans Glas, GmbH enpresak Bavariako Dingolfing herrian Bigarren Mundu Gerra ostean egindako mikrokotxea izan zen.

5. a) EAEko Administrazio Orokorrarena eta Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A. enpresarena zen zati hori.
   b) EAEko Administrazio Orokorrarena eta Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, SA enpresarena zen zati hori.
   c) EAEko Administrazio Orokorrarena eta Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos SA enpresarena zen zati hori.

3. Bete hutsuneak ematen dizkizugun aditzekin:

pairatu | izapidetu | murriztu | bermatu | zedarritu | aldarrikatu | onetsi | esleitu

1. Udaltzaingoak 196 salaketa _____ ditu aurten, hirian txakurrak eraginpean hartzen dituzten arauak ez betetzeagatik.
2. Eskolako guraso eta ikasleek protesta egin dute gaur eskolaren aurrean, eta eraikin berria behar dutela _____ dute.
3. Ariketa fisikoa funtsezko faktorea da bularreko minbizia _____ dutenak lanera itzultzeko.
4. Joan den apirilaren 16an, Europako Parlamentuak kide gehienen botoez _____ zuen Itsaso eta Arrantza arloko Europako Funts berria.
5. Udalak garabi zerbitzurako kontratu berria _____ du, defizita _____ eta egungo beharretara egokitzeko.
6. Diagnostikoak hobetu beharreko hiru alor _____ zituen, hala nola barne kudeaketa, enpresekiko harremanak eta euskararen kalitatea.
7. Aurrekontuek _____ egiten dituzte herritarren oinarrizko beharrak; ongizatea eta gizartearen kohesioa babesten dira.

4. Lotu hitz bakoitza bere sinonimoarekin:

bidaide	1.	a.	gogor
zuhurtzia	2.	b.	eraso
xede	3.	c.	konfirmazio
irmo	4.	d.	gogoeta
berrespen	5.	e.	balorazio
bahitura	6.	f.	bidelagun
jazarpen	7.	g.	prudentzia
hausnarketa	8.	h.	beren-beregi
balioespen	9.	i.	helburu
berariaz	10.	j.	bermea

Soluzioak88

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1.

1. a
2. b
3. b
4. a
5. a
6. b
7. b
8. b
9. b
10. a

2.

1. c
2. c
3. b
4. a
5. c

3.

1. Udaltzaingoak 196 salaketa **izapidetu** ditu aurten, hirian txakurrak eraginpean hartzen dituzten arauak ez betetzeagatik.
2. Eskolako guraso eta ikasleek protesta egin dute gaur eskolaren aurrean, eta eraikin berria behar dutela **aldarrikatu** dute.
3. Ariketa fisikoa funtsezko faktorea da bularreko minbizia **pairatu** dutenak lanera itzultzeko.
4. Joan den apirilaren 16an, Europako Parlamentuak kide gehienen botoez **onetsi** zuen Itsaso eta Arrantza arloko Europako Funts berria.
5. Udalak garabi zerbitzurako kontratu berria **esleitu** du, defizita **murriztu** eta egungo beharretara egokitzeko.
6. Diagnostikoak hobetu beharreko hiru alor **zedarritu** zituen, hala nola barne kudeaketa, enpresekiko harremanak eta euskararen kalitatea.
7. Aurrekontuek **bermatu** egiten dituzte herritarren oinarrizko beharrak; ongizatea eta gizartearen kohesioa babesten dira.

4.

bidaide	1.	f.	bidelagun
zuhurtzia	2.	g.	prudentzia
xede	3.	i.	helburu
irmo	4.	a.	gogor
berrespen	5.	c.	konfirmazio
bahitura	6.	j.	bermea
jazarpen	7.	b.	eraso
hausnarketa	8.	d.	gogoeta
balioespen	9.	e.	balorazio
berariaz	10.	h.	beren-beregi